



lazo bazkariko gaia konklabea izan zen; aurtengoa, Bad Bunnyren Super Bowla.

Morlansko jaiak: harri-orri-ar txapelketa eta Bad Bunnyren Superbowla!

Maiatzaren 15etik 17ra bitarteko asteburuan, Morlansek bere jai propioak ospatuko ditu. Faroltxoaren jaitsierarekin eta jada klasiko bihurtu diren jarduerekin, baina baita berritasunekin ere.

✍️ Xalba Ramirez Cruz
📷 Morlansko Jaiak

Ez dira hiriko jairik handienak, baina jada hamahiru urtetik gora, Morlansko jaiak auzoko erreferentzia puntua dira, inolako zalantzarik gabe. Faroltxoak piztearekin batera abiatuko dira datorren ostiralean, hilak 15. Auzoaren historiari keinu bat egin nahian Morlansko bizilagunek asmatu eta urtez urte errepikatu duten ohitura da.

Auzoko gas fabrikaren garai-ko kale-argietan du bere oinarria. Bizilagunek hala eskatuta, udalak auzoko faroltxo historikoen antza duten kale-argiak mantendu zituen Morlansen, hiriko beste auzoetan ez bezala. Hori dela eta, auzo elkarteak ikur gisa hartu zuen faroltxoak, eta festetako sinbolo modura erabiltzea erabaki zuten.

Ostiralean, beraz, 18:15ean piztuko dute faroltxoak, eta, ostean, Jon Urbieta DJ-arekin hasiko da festa, Asier Aguilar jai batzordeko kideak azaldu duenez. «Iaz giro bikaina jarri zuen DJ-ak, eta, aurren, haurrentzat ez ezik helduentzat ere arituko da gauean».

Maiatzaren 15ean abiatuko dira jaiak, auzoko ikurra den faroltxoaren piztearekin

Larunbatean, berritasunak

Larunbatean hainbat izango dira berritasunak. Jai xumeak izanik, urtero funtzionatzen duten jarduerak mantentzea erabaki dute jai batzordekoek, baina berritasun batzuekin. Horietako bat «erokeria» bat da Aguilarren ustez. Originala gutxienez, bai: harri-orri-ar txapelketa egingo dute eta jaietan. Larunbat eguerdian eman beharko da izena, eta kategoria bakarra izango da: haurrak, gazteak eta helduak elkarren kontra. Kanporaketa bidez izango da eta, final handia, arratsaldeko seietan, plazan.

Bazkariak ere emango du zer esana. Urtero gai berezi bat izaten da mozorrotzeko. Bada, aurtengoa, mundu mailan zer esana eman duen gai batekin izango da: Bad Bunnyren Super Bowla! Jai Batzordeak prestatuko ditu dekorazioaren zati batzuk, baina Morlansko bizilagunen sormenera irekita geratuko da gainontzekoa. Horren ondoren, inguruko auzoetatik etorriko dira olinpiadak jokatzera, eta, eguna amaitzeko Eremu taldearen eta Sutargi erromeriaren kontzertuak izango dira.

Aguilaren ustez, oso «herrikoiak» dira Morlansko jaiak: «Urtero luzatzen diegu auzotarrei parte hartzea eta denon artean antolatzen saiatzen gara». «Ez da egitarau handia, baina auzokideei eta donostiarrei luzatzen diegu hona hurbiltzeko gonbidapena», dio umoretsu. ●

OSTIRALA 15

16:45

Txokolate jana.

17:00

Kalean otso etxean uso kaleko antzerkia.

18:00

Buruhandiak.

18:15

Faroltxo piztea eta txupinazoa, buruhandiekin.

18:30-20:30

Jon Urbietarekin disko festa.

20:30

Sardina jana.

23:00

Jon Urbiet DJ-a.

02:00

Musika txosnan.



LARUNBATA 16

09:00

Diana.

12:00

Gazteentzako grafitiak.

Lagunartean kozinatzen.

13:00

Harri-orri-har lehiaketa.

14:30

Herri bazkaria.

17:00

Musa eta bingoa.

18:00

Harri-orri-ar lehiaketaren finala.

19:00

Auzoen arteko olinpiadak.

21:00

Parrillada.

22:00

Eremu taldea.

23:30

Sutargi erromeria.

01:00

Musika txosnan.

IGANDEA 17

11:00

Bizikleta lasterketa.

12:00

Sagardo dastaketa, plaza dantzak eta toka.

14:00

Gazte makarroi jana.

14:30

Paella autogestionatua.

16:30

Apar festa.

18:00

Jaiaren amaiera.

Urrats
euskaltegia

Ondo pasa Morlansko jaietan!

www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 - Donostia